



ARETXABALETAKO ONDASUN HIGIEZIN HIRITARREN **LURZORUAREN ETA ERAIKINEN BALIO** **PONENTZIAREN ALDAKETA**

SARRERA

2001eko abuztuaren 28an udalerriko Balio Ponentzia onartu zuen Diputatu Kontseilua. Ponentzian oinarrituta, ondasun higiezin hiritarren balio katastralak lortu ziren, eta 2002ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean. Balio katastral berriak 2002ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean.

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak 12. artikuluan jasotzen duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak aldatuko ditu balio katastralak, ofizioz edo Udalak eskatuta, beti ere hirigintza antolamenduak edo beste edozein zirkunstantziak agerian uzten badu diferentzia nabarmenak daudela, alde batetik, balio katastral horien eta, bestetik, udalerrian nahiz bertako zonaren batean edo batzuetan kokatzen diren ondasun higiezin merkatuko balioen artean.

Balio ponentzia onartu denez geroztik, aldaketak izan dira udalerriko hirigintza antolaketan; gainera, lurzoruaren izaerari eta, beraz, aldaketa horiekin lotutako ondasunen merkatuko balioari eragin diete aldaketa horiek.

Horregatik guztiagatik, udalerriko lurzoruaren eta ondasun higiezin hiritarren lurzoruaren eta eraikinen balio ponentzia aldatu da.

XEDEA

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak, Ondasun Higiezin gaineko Zergari buruzkoak, 12. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalerriko balio ponentzia aldatu da zirkunstantzia hauek direla medio:

1.- Udalerriko hiri antolaketan aldaketa hauek egin dira:

- **Aretxabaletako 4 A Areari dagokion Hiri Antolaketako Arauetako Elementuen Aldaketa, 2012ko maiatzaren 2ko Diputatuen Kontseiluan onartua.**



EGIN BEHARREKO ALDAKETAK

Aipatu zirkunstantzien ondorioz, honela aldatuko da Balio Ponentzia:

- 1.- Lurzoru hiritarraren mugapena aldatzen da.
- 2.- 801 zona katastrala desagertzen da.
- 3.- 116 zona katastrala sortzen da.
- 4.- Sortutako zona berriak honako balioak izango ditu:

<u>Zona</u>	<u>Hirigintz. klasif</u>	<u>(EK)Eraik Kos.</u>	<u>(BEE)Balio Erag.</u>	<u>(MP)Apark Moduloa.</u>
116	HIRILURRA	540,91 €/m ² (t)	471,67 €/m ² (t)	12.020,24 €

- 5.- V azpizona katastrala esleitu zaie 116 zona katastraleko kalei edota kale tarteei.

I. ERANSKINA:

Lurzoru hiritarraren mugaketa planoak.

II. ERANSKINA:

Zona katastralen planoak.